

Helburu didaktikoak	Ebaluazio adierazleak
<p>1. Jarduera fisikoak osasunean duen eragina eta higie-ne-ohitura nahiz jarrera osasungarrien onurak identifikatu, aztertu eta aplikatu jarduera fisikoa egitean. Gaitasun fisikoen barruan erresistentziaren lanketa.</p>	<p>1.1. <i>Heziketa fisikoa egitean arropa eta higie-ne-a zaintzen ditu.</i></p> <p>1.2. <i>Erresistentzia kontzeptua eta dauden motak ulertu eta ezberdintzeko gai da.</i></p> <p>1.3. <i>Test fisikoen bitartez ere ezaugarri fisiko/psikologikoak ezagutzen eta onartzen ditu eta hobetzeko ahalegina egin du.</i></p>
<p>2. Lehen sorospenen garrantzia azpimarratuz, gutxieneko oinarri teorikoak barneratu eta bihotz biriken berpiztearen teknika praktikatzea.</p>	<p>2.1. <i>Oinarri teorikoak neurtzeko galdetegia eskurakoaren arabera bete du.</i></p> <p>2.2. <i>Saio praktikoen ikusitakoaren baitan, desfibriladorea noiz eta nola erabili eta bihotz masajea egiteko gai da.</i></p>
<p>3. Kirol alternatiboen barruan Artzikirolean pilota jaurtitzea, pasatzea eta jasotzea, kontrola galdu gabe eta behar bezala egokituz joko zelaiko egoerari, distantziei eta ibilbideei, jarduerak dituen berezitasunak kontuan hartuta. Modu koordinatuan eta lankidetzan jardutea.</p>	<p>3.1. <i>Artzikirolak dituen arau nagusiak ezagutu eta praktikan jartzen ditu.</i></p> <p>3.2. <i>Araua emaitza bere alde eramateko gai da.</i></p>
<p>4. Taldekako kirol tradizionalen barruan eskubaloia-ren lanketa.</p>	<p>4.1. <i>Eskubaloia-ren barne logika ulertzeko gai da.</i></p> <p>4.2. <i>Joku-jolas egoera bere alde edo taldearen alde jartzeko gai da.</i></p> <p>4.3. <i>Erasorako eta defentsarako bakarkako eta taldeko estrategiak erabiltzen ditu.</i></p> <p>4.4. <i>Joku-jolas egoeretan espazio hutsei antzeman eta modu eraginkorrean erabiltzen ditu.</i></p> <p>4.5. <i>Eraso eta defentsa egoeretan rolak identifikatu eta betetzen ditu.</i></p> <p>4.6. <i>Bere ekintza motorrak besteekin koordinatzen ditu.</i></p>